

IRAKURMENA

1. TESTUA

60 Kirmen Uribe. Garan idatzitako iritzi-artikulu bat irakurriko duzu.

1. egitekoa

Irakurri testua eta ondorengo galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi letra beheko laukietan, adibidean egiten den bezala.

GATZA

Gogoratzen dudan lehenbiziko gauza zein den galdetuko balidate, ez nuke jakingo oso ondo zer erantzun. Badaude irudiak, lausoak eta definiziorik gabekoak gehienetan, badaude zaratak, baina argien gogoratzen dudana usaina 70 da, antxoa-xerren usaina. Izan ere, ama eta izeba askotan egoten ziren antxoa-xerrek egiten etxeko sukaldean. Eta ni jolasean ibiltzen nintzen bien bitartean, mahai azpian.

Xerren prozesua luzea izaten zen. Lehenbizi, udaberrian, tamaina oneko antxoak harrapatzen zirenean, gorde egiten ziren. Ondo garbitu, eta latetan sartzen zituzten etxeko emakumeek. 80 Latak biribil-biribilak izaten ziren, sakonak eta handiak. Lehenbizi gatz lodia botatzen zen lataren hondo-hondora. Gero, antxoak jartzen ziren, bata bestearen alboan, ilaran. Ilara bat betetzen zutenean, gatz lodia berriz ere gainera, eta ondotik beste antxoa ilara bat, baina aurrekoaren kontrara. Gero, gatz lodia berriz ere. Horrelaxe lata antxoaz gainezka egon arte.

90 Lata betetzean muera botatzen zen. Muera, ura gatzarekin. Ur gazi-gazia izaten zen. Eta gatz tamaina egokian zegoela jakiteko patata bat botatzen zuten uretara, ea ur azalean geratzen zen ikusteko. Patata hondoratzen ez bazen prest zegoen muera. Azkenik, latari tapa jarri eta harri handi bat jartzen zitzaion gainean, hondartzako harri handi horietako bat, edo adokin zahar bat, zergatik ez, ura 100 bota zezan.

Eta hantxe egoten ziren gorderik antxoak, ezkutuan eta ilunetan, hilabete luzez. Eta garbitzeko garaia iristen zen

halako batean. Erdiko hezurra kendu eta xerrek ateratzen zituzten amak eta izebak, xerra xamur-xamurrak. Eta ni zer gerta ere, hantxe egoten nintzen mahai azpian, hanka tartean jolasean, xerraren bat emango zidaten esperantzaz.

110 Antxoa-xerrek egitearena beti izan da emakumeen lana. Kontserba-lantegietan haiek egoten ziren lanean duela ehun eta berrogeita hamar urte italiar familiak hona etorri eta lantegiak zabaltu zituztenetik. Emakumeak lanean, neska-koskorak zirenetik. Oraintsu arte.

Gaur, aitzitik, antxoaren eskasiarekin lantegietako lan baldintzak okertu egin dira dexente. Hortxe ikusten ditut kaletik 120 emakumeak, manifestazioa egiten, herriko bazterretan. Emakume langileen manifestazioak, haurrak gurdietan eramaten dituztela.

Badago gatzarekin lotutako esaera bat herrian: gatz tamaina eman. Gatz emateak esan nahi du atzean uztea, albo batera uztea, haizea hartzera bidaltzea. Behin gatz emanda arraina iragana baita, beste arrain bati iristen zaio txanda. 130 Bada, gatz tamaina eman beharko genieke lan baldintza okerre, gatz, eskubideak ez betetzeari.



Kirmen Uribe. Gara 2006/06/19

Adibidea:

0.- Txikitako oroitzapenetatik zein du bereziki gogoan Kirmen Uribek?

- a. amak eta izebak, antxoak ontzietan sartzen ari zirela, egiten zuten zarata.
- b. ama eta izeba antxoak ontzietan sartzen aritzen zirenean, sortzen zen usaina.
- c. amak eta izebak, antxoak ontzietan sartzen ari zirela, osatzen zuten irudi lausoa.
- d. bere burua ikusten du txikitak antxoak ontzietan sartzen, ama eta izebarekin batera.

10

1. Nola prestatzen dira ontziko antxoak?

- a. Gatza antxoak sartu aurretik, eta ontzia antxoaz bete ondoren, botatzen da.
- b. Gatza antxoak bakoitzari eman behar zaio, ontzian sartu baino lehen.
- c. Gatza soilik amaieran botatzen da ontzian, antxoaz beteta dagoenean.
- d. Gatza ontzia hutsik dagoenean, eta antxoak ilara bakoitzean botatzen da.

2. Zertarako erabiltzen zituzten patata eta harria, antxoak ontzietan jartzean?

20

- a. Patata, antxoen ura askatzeko eta, harria, gatza ongi itsasteko.
- b. Patata, kolorea emateko eta, harria, antxoak latan hobeto estutzeko.
- c. Patata, gatz nahikoa zuten jakiteko eta, harria, ura askatzeko.
- d. Patata, zapore berezia emateko eta, harria, lata ixten laguntzeko.

3. Antxoak garbitzeko garaian zer egiten zuten?

- a. Amak eta izebak antxoei hezurak kendu, eta xerrak egiten zituzten.
- b. Amak eta izebak, idazlearekin batera, antxoa xerra xamurrak jaten zituzten.
- c. Hirurak antxoak garbitzen, hezurra kentzen eta xerrak egiten aritzen ziren.
- d. Kontserba-lantegietara eramaten zituzten antxoak garbitu eta xerrak egitera.

30

4. Zertarako erabiltzen da testuan "gatza eman" esaera?

- a. Zerbait ongi nola kontserbatu behar den esateko.
- b. Zerbait pikutara bidali behar dela adierazteko.
- c. Zerbaiten gustu gutxi duela esateko.
- d. Zerbait berriro egin behar dela esateko.

5. Zein da idazlearen asmoa, artikulua idazterakoan?

40

- a. Emakumeen lana gero eta erosoagoa dela esan nahi du.
- b. Lehen orain baino lan gehiago egiten zela esan nahi du.
- c. Herriari kontserba-lantegiak eman dion aberastasuna goraiatu nahi du.
- d. Emakumeen lan baldintza txarrak salatu nahi ditu.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0- b	1	2	3	4	5
-------------	---	---	---	---	---